Lan-eskaintzen erregistroa 2021eko martxoan

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2021eko martxoan Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 552 izan da, otsailean baino 30 gutxiago eta joan den urteko martxoan baino 50 gutxiago. Egunean bataz bestez 23 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 6 eskaintza gutxiago egunean. Hilabete honetako datuak ezin dira ulertu Covid-19ak sortutako pandemia kontuan izan gabe.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2021eko martxoan 97 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 205 Gipuzkoan eta 250 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 45,3 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 37,1 Gipuzkoan eta % 17,6 Araban.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 11,5 hazi dira eskaintzak (10 eskaintza gehiago), Bizkaian murrizketa % 12,3koa izan da (35 eskaintza gutxiago) eta, azkenik, Gipuzkoan % 17,6koa izan da murrizketa (5 eskaintza gutxiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 7 eskaintza gutxiago erregistratu dira, % 6,7ko murrizketa; Gipuzkoan berdin mantentzen dira, eta azkenik, Bizkaian 432 eskaintza gutxiago izan dira, % 14,7ko murrizketa.

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. % 21,4a, tekniko zientifikoko lanbide-profilerako erregistratu dira (118 eskaintza); eta, %18,3a, zerbitzuetako langileen profilerako (101 eskaintza). Industriako langileen, laguntza teknikarien eta kualifikatu gabeko profilen lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 98, 89 eta 69 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, zuzendariak eta lehen sektorekoak izan dira, 6 eta 9 eskaintza, hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, ondorengoa izan da bilakaera: zerbitzuetako langileen profilekoak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan (31 eskaintza gehiago, % 44,3ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, zuzendarienak izan dira, % 500,0eko hazkundea (5 eskaintza gehiago). Beste muturrean aurkitzen dira administrarien profileko eskaintzak, hauek izan baitira gehien murriztu direnak bai balore absolutuetan bai erlatiboetan (42 eskaintza gutxiago, % 57,5eko murrizketa).

Urte arteko saldoari erreparatuz, hau izan da bilakaera: balore absolutuetan, zerbitzuen profileko eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak (19 eskaintza gutxiago, % 15,8ko murrizketa); balore erlatiboetan, aldiz, administrarienak izan dira (% 32,6ko murrizketa, 15 eskaintza gutxiago). Beste muturrean daude industriako profileko eskaintzak, gehien hazi direnak izan baitira balore absolutuetan (11 eskaintza gehiago, % 12,6ko hazkundea), eta zuzendarienak, gehien hazi direnak baitira balore erlatiboetan (% 5oeko hazkundea, 2 eskaintza gehiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 15,8k kontratu mugagabea eskaini dute; % 83,5ek, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,7k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 87 izan dira, aurreko hilabeteko kopuru berdina. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 18 eskaintza gutxiago erregistratu dira: 461 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan murrizketa % 3,8koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2021eko martxoan 4 izan dira, aurreko hilean baino 12 gutxiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 11 gehiago izan dira (% 14,5eko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 11,4 murriztu dira; 59 eskaintza gutxiago, eta, merkataritzako kontratuak, aldiz, 2 gutxiago erregistratu dira.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2021eko martxoan erregistratutako lan-eskaintzen 2 herenek (379 eskaintza, %68,7) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 17,2k (95 eskaintza) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 2,4ko pisua dute (13 eskaintza) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenen pisua % 0,2koa da (eskaintza bat).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza guztiak murriztu dira, 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan ezik (5 eskaintza gehiago erregistratu dira). Gehien murriztu direnak, balio absolutuetan, 6 hilabete baino gutxiagoko eskaintzak izan dira (14 eskaintza gutxiago, % 3,6ko murrizketa); aldiz, balio erlatiboetan, 5 urtetik gorako esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira gehien murriztu direnak (% 50eko murrizketa, eskaintza bat gutxiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, hau izan da bilakaera: 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira beherakada handiena jasan dutenak balio absolutuetan (46 eskaintza gutxiago, % 10,8ko beherakada). Aldi berean, balio erlatiboetan, 1 eta 3 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira gehien murriztu direnak (% 14,7ko jaitsiera, 11 eskaintza gutxiago). Beste muturrean aurkitzen dira 6 eta 12 hilabeteko esperientzia eskatzen dutenak, hazi diren bakarrak izan baitira (9 eskaintza gehiago, % 10,5eko hazkundea).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean baino hilabete bat gutxiago.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 14,1ak zehazten du datu hori (552 eskaintzetatik 78). 78 eskaintza horietatik, 63 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 15ek, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 4 gehiago izan dira otsailarekin alderatuz, hau da, % 6,8 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak bat gutxiago izan dira; murrizketa erlatiboa % 6,3koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 11 gutxiago izan dira (% 14,9ko murrizketa), eta lanaldi partzialeko kasuan, 7 eskaintzakoa izan da beherakada (% 6,3ko murrizketa).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 7 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 3 eskaintza gutxiago, eta 2020ko martxoan baino 4 gutxiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 81,9k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 552 eskaintzetatik 100ek soilik zehaztu dute.



100 eskaintza horietatik, 33k LHko prestakuntza maila eskatu dute (% 33,0); eta beste 32k unibertsitateko ikasketak (%32,0). Ondoren, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak daude 31 eskaintzekin (% 31,0). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (4 eskaintza, % 4,0).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, hurrengoa da bilakaera: bai balio absolutuetan bai erlatiboetan gehien murriztu direnak unibertsitateko prestakuntza maila eskatzen dutenak izan dira (12 eskaintza gutxiago, % 27,3ko murrizketa). Beste muturrean oinarrizko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, hazi diren bakarrak baitira (12 eskaintza gehiago, % 63,2ko hazkundea).

2020ko martxoarekin alderatuz, murriztu diren bakarrak batxilergoko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (5 eskaintza gutxiago, % 55,6ko murrizketa); aldiz, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan, oinarrizko prestakuntza maila eskatzen duten eskaintzak izan dira (6 eskaintza gehiago, % 24,0ko hazkundea).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena manufaktura-industria izan dira; honen pisua eskaintza guztien % 14,7koa izan da (81 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera batzuk, merkataritza, osasun jarduerak, eraikuntza eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak izan dira, eskaintzen % 13,0, % 11,6, % 9,8 eta % 9,3ko pisuarekin (72, 64, 54 eta 51 lan-eskaintza, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz bilakaera hau izan da: gehien murriztu direnak, balore absolutuetan, jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetako eskaintza izan dira (12 eskaintza gutxiago, % 19,1eko murrizketa) eta balore erlatiboetan garraio eta biltegiratzeko eskaintzak izan dira (% 50eko murrizketa, 11 eskaintza gutxiago); aldiz, beste muturrean osasun jardueretako eskaintzak daude, gehien hazi direnak izan baitira, eskaintza kopuru nabarmen bat duten eskaintzen artean (209 eskaintza gehiago, % 82,9ko hazkundea).

Urte arteko saldoari erreparatuz, ondorengoa izan da bilakaera: bilakaera okerrena pairatu duten eskaintzak, balore absolutuetan, ostalaritzakoak izan dira (16 eskaintza gutxiago, % 44,4ko murrizketa); balore erlatiboetan, aldiz, informazio eta komunikazioko eskaintza izan dira (% 61,9ko murrizketa, 13 eskaintza gutxiago). Beste muturrean, beste zerbitzuetako eskaintzak, balore absolutuetan gehien hazi direnak (9 eskaintza gehiago, % 40,9ko hazkundea) eta finantza jardueretako eskaintzak, balore erlatiboetan gehien hazi direnak, daude (% 66,7ko hazkundea, 4 eskaintza gehiago).